

**E**l Museo del Carlismo, equipamiento cultural del Gobierno de Navarra, propone con su nueva exposición temporal, **Montejurra. La Montaña Sagrada**, una aproximación a uno de los emblemas geográficos e históricos del movimiento desde la batalla librada los días 7, 8 y 9 de noviembre de 1873 y que fue favorable a los partidarios de Carlos VII. Tras este hecho, y a través de un proceso de construcción simbólica, Montejurra adquiriría una gran significación para el colectivo carlista, dando su nombre a uno de los tercios de requetés que se sublevaron contra la Segunda República y, tras la Guerra Civil, y de manos de los familiares de los excombatientes carlistas, con la celebración de una romería anual.

El Vía Crucis de ascenso a Montejurra, primero señalado con cruces de madera y, a partir de la década de 1950, con cruces de piedra, sería progresivamente el escenario de una de las principales concentraciones sociales y políticas durante la dictadura, en especial a partir de 1957, cuando Carlos Hugo de Borbón-Parma, hijo del Pretendiente Javier I, fue presentado como "Príncipe de Asturias" ante la muchedumbre allí congregada.

La exposición temporal **Montejurra. La Montaña Sagrada**, comisariada por Manuel Martorell Pérez, con un enfoque historiográfico especialmente sensible hacia las posiciones ideológicas en torno a D. Javier y Carlos Hugo, ofrece un amplio y detallado relato, a través de paneles gráficos y piezas museográficas, muchas de ellas cedidas por instituciones y particulares, en la que se explica la azarosa evolución de un movimiento, el carlismo, que fue represaliado por las instituciones gubernamentales, llegándose incluso a ordenar la expulsión de la familia real carlista.

Sin omitirse hechos luctuosos como los Sucesos de Montejurra, ocurridos el 9 de mayo de 1976 y de los que este año se ha cumplido el 40 aniversario, la exposición propone además una reflexión acerca del sentido y valor que a día de hoy poseen los testimonios del pasado histórico del carlismo.

Museo del Carlismo

**K**arlismoaren Museoak, Nafarroako Gobernuaren hornikuntza kulturalak, **Jurramendi. Mendi Sakratua** izena duen aldi baterako erakusketa berri honekin 1873ko azaroaren 7, 8 eta 9an jazo zen eta Carlos VII.aren aldekoa izan zen guduaren ondorengo mugimenduaren ikur geográfiko eta historikoenganako hurbilketa bat proposatzen du. Gertakari horren ondoren, eta eraikuntza sinbolikoaren prozesu baten bidez, eta borrokalari izandako karlisten senideek urtero antolatzen zuten erromeriaren bidez Jurramendik esanahi handia hartu zuen karlistentzat, eta izena eman zion Bigarren Errepublikaren aurka matxinatu zen errekeetean oinezko erregimentu bati.

Hasiera batean Jurramendira igotzeko Gurutze Bidea zurezko gurutzeekin seinalatu zen, eta 1950. hamarkadaz geroztik harrizko gurutzeekin. Gutxiaka, bide hori diktaduran kontzentrazio sozial eta politiko nagusietako baten eszenatoki bihurtuko zen; batez ere, 1957. urtetik aurrera, hain zuzen, Borboi-Parmako Carlos Hugo, Javier I.a errege-nahiaren semea, bertaratutako jendetzaren aurrean "Asturiaseko Printze" moduan aurkeztu zuten unetik aurrera.

Manuel Martorell Pérez komisario duen **Jurramendi. Mendi Sakratua** izeneko aldi baterako erakusketak, D. Javier eta Carlos Hugoren inguruko jarrera ideologikoen ikuspegia historiográfikoa eskaintzen du. Panel grafiko eta pieza museográfikoen bidez –haietako asko erakundeek eta partikularrek lagata–, era zabal eta xehean azaltzen du mugimendu honek, karlismoak, izan zuen garapen gorabeheratsua, izan ere, gobernuaren erakundeek zigortu egin zuten eta errege familia carlista kanporatzeko agintzeraino iritsi zen.

Erakusketak 1976ko maiatzaren 9ko Jurramendiko Hilketak –aurten 40. urteurrena bete da– deritzenen gisako gertakari tristagarriak ere aipatzen ditu. Horrez gain, gaur egun karlismoaren iragan historikoko testigantzek duten zentzuari eta balioari buruzko hausnarketa proposatzen du.

Karlismoaren Museoa